



HEZKUNTZA SAILA
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza
Lan Arriskuen Prebentzioa*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
*Dirección de Gestión de Personal
Prevención Riesgos Laborales*



SPRL -AREN PROPOSAMENA(V-01):
EAE.ko IKASTETXE PUBLIKOETAN COVID19 -REN ERAGINPEAN EGOTEKO ARRISKUA MURRIZTEKO
JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZERBITZUAREN ARDURADUNA

AMPARO BETEGON HERNANDO

Vitoria-Gasteizen 2020.eko apirilaren 13an

Edukia:

1. **Kontingentzi Planaren** printzipio gidariak
2. Aplikatzeko eremuak
3. Alderdi orokorrak
4. Jarraitu beharreko urratsen deskripzioa (OSALAN)
5. Europako ibilbide-orri bateratua, COVID-19ri eusteko neurriak hartzeko
6. Ikastetxe publikoetako kontingentzia Planaren Plana
 - 2020ko apirilaren 14a
 - 2020ko apirilaren 20a

1. Kontingentzia Planaren printzipio gidariak :

Proposamen hau orokorra eta aldakorra da, unean-uneko osasun-jarraibideen arabera eta krisiaren une bakoitzera neurri zehatzekin egokituko da.

- Langileen osasuna babestea
- Hezkuntza Sailaren funtsezko zerbitzuak bermatzea
- Langileentzako gorabeherak eta kalteak minimizatzea
- Telematikoki egitea ahalbidetzen duten zerbitzuak ematea
- Lakuako, ordezkarietako eta ikastetxeetako egoeraren koordinazio zentralizatua
- Hartutako neurriei eta egoerari buruzko informazio eguneratua, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren (aurrerantzean, LAPZ) web orriaren bidez. bidez.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-lapz/>

Zerbitzu Esentzialak: on line prestakuntza eta komunikazio digitala

2. Aplikatzeko eremua:

Jarduneko langileen batez bestekoa 28.000 langile eta 300.000 ikasle inguru
Hezkuntza-mailak, langileen tipologia eta ikastetxeak askotarikoak dira:

Irakasleak: haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Kontserbatorioa, Hizkuntza Eskola, Musika eta Arte, lanbide-arlo guztietako Lanbide Heziketa

Irakasleak ez direnak: hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, gizarte-laguntza, transkribatzaile/egokitzaile materiala, zeinu-mintzairaren interpretea, Terapeuta okupazionala, sukaldeko eta garbiketako langileak eta atezain-zaindariak.

Funtzionarioak eta lan-kontratadunak, finkoak, bitartekoak eta aldi baterakoak dira, eta Araba 95, Bizkaia 292 eta Gipuzkoa 205 lurralde historikoetan daude.


Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak

Hezkuntza Bereziko Ikastetxea
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea
Helduen Hezkuntza Ikastetxea
Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua
Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa (Kirolene)
Ikastetxe publiko integrala
Musika Kontserbatorio Profesionala
Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola
Haur Hezkuntzako eskola
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Eskola (Dantzerti)
Bigarren Hezkuntzako Institutua
Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua
Ibaiondo Adingabeen hezkuntza zentroa

Administrazio-zentroetako eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetako langileak: Hezkuntza Ikuskaritza, Ingurugela, Itsuentzako baliabide-zentroa, IRALE, Barnetegiak, etab.

Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuak

Ikuskaritza 3 L.H	
Berritzegunea	19
CEIDA- Ingurugela	4
Irale	5
Euskal Girotze Barnetegia	5
Itsuentzako baliabide-zentroa - CRI	3
Hezkuntza arreta zentroa Ospitalekoa, etxekoa (CAEHD)	3
Berrikuntza-zentroak (Tknika-IVAC)	2
Ebaluazio- eta kalitate-zentroak :sormenaren Euskal Institutua Apl. LHn (IDEATK) - ISEI-IVEI	2
Ordezkaritzak	3
Hezkuntza-organoak (Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua - Euskadiko Eskola Kontseilua)	2
Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia fundazio pribatua	1

Ikastetxeetako eraikinen jabetza askotarikoa denez: Sailak, udalek eta pribatuek jarduera-erantzukizuna partekatzen dute.

Ikastetxeetan, Hezkuntza Sailaren mendeko langileez gain, Administrazio Orokorreko, udaletako eta azpikontratetako langileak daude, eta, beraz, Hezkuntza Sailak prebentzio-lanak koordinatu behar ditu beste prebentzio-zerbitzu batzuekin.

Azpimarratu behar da behin-behinekotasun eta ordezkapenen ehuneko handia dagoela, hainbat arrazoiengatik.

Hezkuntza Sailaren jarduerak ikasleekiko eta Saitetik kanpoko beste pertsona batzuekiko tratua barne hartzen du: hornitzaileak, gurasoak ...



3. Alderdi orokorrak

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak (SPRL), Hezkuntza Sailak hartutako prebentzio-erakunde gisa eta OSALANen jarraibideei jarraituz (2020ko apirilaren 8a), langileek ikastetxeetan duten Covid 19aren esposizio-arriskua murrizteko, informazio-kanalak eta SPRLren osasun-arloari esleitutako jarduerak ezagutzera ematen ditu.

- **Osasun Ministerioaren eta Eusko Jaularitzako Osasun Sailaren** gomendioen aldatetei buruzko informazioa :
 - <https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritzza/hezkuntza-saila/>
- Nola jarri harremanetan SPRLrekin:
 - prebentziohezkuntza@euskadi.eus
 - http://www.euskadi.eus/contenidos/enlace/sprl_contacto/eu_def/adjuntos/contacto_con_SPRL_e.pdf
 - <https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritzza/hezkuntza-lapz/>
- **Osasun-arloari** esleitutako jarduerak egiteko :
 - Kasuen jarraipena egitea eta lan-eremuan harreman estuak bilatzea .
 - Osasun Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan aritzea etxean etxeko isolamenduak ezartzeko.
 - Osasun Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan aritzea, funtsezko zerbitzuetako langileen diagnostikoa egiteko.
 - Langile kalteberen eta bereziki sentikorren balorazioa .
 - Osasun Zerbitzu Publikoarekin koordinatzea, langile horiei aldi baterako ezintasuna kudeatzeko..

[Alerta-egoeran ikastetxeetan aurrez aurreko Langileen eguneroko erregistroa.](#)



4. Jarraitu beharreko urratsen deskripzioa (OSALAN)

1. URRATSA: Covid 19aren esposizioaren arriskua saihestu. Esposizioa eta/edo hedapena saihesteko neurri orokorrak hartu.

2. URRATSA: Ikastetxeetan aritzen dire langileen esposizio-arriskua ebaluatu langileak 3 mailatan sailkatu ahal izateko (arrisku-esposizioa, arrisku txikiko esposizioa eta esposizio-probabilitate txikia) eta, horrela, prebentzio-neurriak graduatu ahal izateko ebaluatutako arriskuaren arabera.

3. URRATSA: Prebentzio-jarduera planifikatu arestian deskribatutako arrisku-mailen arabera, prebentzio-neurri hierarkizatuak erabilia:

1. Antolamendu neurriak
2. Babes kolektibokoak
3. Norbera babestekoak
4. Prestakuntza eta informazioa

Infekzioa prebenitzera (desinfekzioa) bideratutako neurriei **eta kasu posible, probable edo baieztatu** gisa edo pertsona sintomatikoaren **kontaktua estutzat** jo daitezkeen langileen aurrean hartu beharreko neurriei dagokienez, **Hezkuntza Sailak** arlo horretan eskumena duten **osasun-agintarien jarraibideak** betetzen ditu.

4. URRATSA: Kontrola eta komunikazioa

1. URRATSA: ARRISKUA SAIHESTU

Esposizioa eta/edo hedapena saihesteko neurri orokorrak hartu.

a) Antolaketa-arlokoak :

1. Urrutiko lan-sistemak ezarri, ahal den guztietan.
2. Ordutegiak malgutu, lana eta familia bateragarri egingo direla ziurtatzeko eta sarreretan eta irteeretan jendea pilatzea saihesteko.
3. Nahitaezko eskubideak dituzten pertsonak betetzen direla bermatzea
4. Bermatu sentikorrak diren langileak eta sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, eztarriko mina edo antzeko sintomak dituztenak beren etxeetan egon daitezela, lanera joan barik.
5. Langileak kontaktu estua izan badu gaixo sintomatiko batekin, etxean egongo da berrogeialdian, 14 egunez, eta sintomen agerpenaren jarraipen pasiboa egingo du.
6. Langileen arteko kontaktua minimizatu, haien arteko distantziak handituz (2 metro).
7. Ezarri ordutegi eta txanda bereziak, lantokietan aldi berean dauden langileen kopurua murrizteko.
8. Aldagelen eta higiene-zerbitzuen erabilera mugatu (komunak, etab.).
9. Bertan behera utzi funtsezkoak ez diren bilerak eta bidaiak
10. Behar-beharrezkoa ez bada, ez erabili:
 - Funtsezkoak ez diren igogailuak eta instalazio osagarriak.
 - Erabilera arrunteko atek eta teklatuak irekitzeko mekanismoak (ateak irekita eduki eta makina banatzaileak ez erabili).
 - Jantokiak, lantokietako elikagaien manipulazioa eta kontsumoa ahalik eta gehien mugatu
 - Eskaileretako eskubanda.
11. Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotu, lanaldi bakoitzean hainbat aldiz egin: zoruak, teklatuak, aginte-mahaiak, mahaiak, etengailuak, heldulekuak, txorrotak, etab
12. Ziurtatu langileek erraz eskura ditzaketela ura eta xaboia. Hori posible ez den tokietan, jarri eskuetako higienerako gel hidroalkoholikoak, lehortzeko erabili eta botatzeko papera eta paperontziak. Paperontziak tapadunak izango dira eta ixteko moduko poltsa bat izango dute. Komenigarria da paperontziak pedaldunak izatea. Ondo arautu paperontzietako hondakinak eta abar nora botako diren
13. Koordinatu kontratekin eta ABLE-ekin hartutako neurriak eta eragindako langileen arriskuaren ebaluazioa.
14. Lan-prozedurak berrikusi arriskuarekiko esposizioaren iraupena, maiztasuna eta intentsitatea murrizteko, funtsezko egitekoak identifikatuz eta gainerakoak atzeratuz
15. Zuzendaritza-kide edo langile bat izendatzea aztertu, Covid-19ko krisialdiko salbuespenezko prebentzio-jardueren koordinatzailea izango dena, Saileko langile guztientzat erreferentzia-puntua izan dadin. Garrantzitsua da langileak informatzea eta haien parte-hartzea
16. Ekintzak erregistratu: hartzen diren ekintzak erregistratzeko liburu edo agenda bat egitea gomendatzen da, data, ordua, arduradunak eta abar zehazteko, eta sor



daitekeen dokumentazio guztia gordetzeko: garbiketaparteak, mantentze-lanen kanpo-kontrolak, zerbitzu-albaranak, laneko bajak, etab.

b) Babes kolektibokoak:

1. Handitu lantokietako aireztapen-ratioak.
2. Automatizatu langileak ordezkatzeko prozesuak, haien esposizioa murrizte aldera.
3. Erabili kontrol telematikoak, giza kontrol presentziala ordezeko.

c) Norbera babesteko ekipamenduak (NBE)

1. NBEren erabilera eskusiboa egin, arriskuaren arabera, eta azken neurri gisa gizabanakoaren eta arriskuaren artean, arestian aipatutako antolaketa- eta talde-neurriak hartu ondoren.
2. Langileei NBEak erabiltzeko prestakuntza eman, bereziki horiek jarri eta kentzeko.
3. NBEak behar bezala mantendu, biltegitatu, erabili eta bota.
4. Ohiko lana egiteko beharrezkoa denean NBEak erabiltzen jarraitu.

d) Prestakuntza eta informazioa

1. Informatu eta prestatu langileak Covid19arekin zerikusia duten prebentzio-neurri espezifikoak buruz.
2. Gogoratu, egunean zehar maiz, pertsonalki edo megafoniaz, eskuak/aurpegia ahalik eta gutxien ukitu behar direla eta eskuak askotan garbitu behar direla.
3. Jakinarazi eta gogorazi eskuak behar bezala garbitzeko argibideak
4. Zabaldu koronabirusa prebenitzeko gomendioak

2. URRATSA: ESPOSIZIO-ARRISKUA EBALUATU

Ikastetxeetako jardueraren izaeraren, SARSCoV-2 koronabirusaren transmisio-mekanismoen eta pertsona sintomatikoekin lan-harremana estua den edo ez kontuan hartuta, 3 arrisku-maila ezar ditzakegu (Prebentzioa_RLL-COVID-19, Osasun Ministerioa), eta horietan kokatzen dira lanpostuak:

Arriskuaren ebaluazioa	Langileak
ESPOSIZIO-PROBABILITATE TXIKIA	Jendearentzako zuzeneko arretarik gabe, edo halakorik badute, bi metro baino gehiagora gertatzen da, edo kontaktua saihesten duten babes kolektiboko neurriekin.
ARRISKU TXIKIKO ESPOSIZIOA	Izan daitekeen harremanean persona sintomatiko batekin kontaktu esturik ez duten lan-egoerak.
ARRISKU-ESPOSIZIOA	SARS - Cov - 2 sintomatikoak eragindako infekzio-kasu probable edo baieztatu batekin kontaktu estua ¹ con izan dezaketen lan-egoerak.

¹ Kasuak sintomak zituen bitartean zaintzak eman dituen edozein pertsona. Kasuaren leku berean egon diren bizikideak, senideak eta pertsonak, kasuak gutxienez 15 minutuz 2 metro baino gutxiagora sintomak zituen bitartean.



3. URRATSA: PREBENTZIO JARDUERA PLANIFIKATU (PREBENTZIORAKO NEURRIAK)

Krisiarekin eta osasun-agintarien jarraibide berrieekin aldaketak planteatu ahal izango dira. Eta osasun- eta babes-baliabideen eskuragarritasuna.

3.1 Urratsa) ESPOSIZIO-PROBABILITATE TXIKIA

Oro har, adierazitakoak (1. urratsa). Horietatik, ez dira ahaztu behar:

3.1.1) Antolaketa-neurriak

1. Ziurtatu lantokietan higiene-neurriak ezartzen direla eta berorien jarraipena. Eskuak maiz garbitu.
Ziurtatu eskuak lehertzeko xaboi likidoa eta papera banatzeko gailuak daudela. Eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzeko aukerarik ez dagoenean, oinarri alkoholikoko desinfektatzaile bat eman. Ziurtatu zabor-poltsekin estalitako paperontziak daudela. Gainazalak sakonki garbitu.
2. Ziurtatu jendearentzako arreta dagoen gunetan, aurreko gomendioez gain, erabili eta botatzeko paperezko zapiak eta zabor-poltsaz estalitako paperontziak daudela
3. Prebentzio-neurrien berri eman eta mugatu instalazioetara sartzeko edukiera (gehieneko kopurua, banan-banan sartzea, ilara bereziak, etab.).
4. Harremana presentziala eta aurrez aurreko arreta mugatu: telefono bidezko lana, telelana, etab

3.1.2) Babes kolektibokoak

1. 2 m-ko distantzia mugatzea eta mantentzea, mostradoreak eta arretarako leihatilak, materiala entregatzeko zereginetan .
2. Esposizio-denborak murriztea, eguneko edo asteko langileen txandak, lanaldi partzialak eta abar antolatuta.

3.1.3) Norbera babestekoak .

1. Ez da beharrezkoa NBE erabiltzea. Hala ere, egoera jakin batzuetan, adibidez, pertsona sintomatiko batek lankidetzarik erakusten duenean, arnasketa-babesa eta babes-eskularruak erabiliko dira ebakuazio izan arte

3.1.4) Prestakuntza eta informazioa

1. Eskuak behar bezala garbitzeko jarraibideak eman.
2. Koronabirusa prebenitzeko gomendioak zabaldu.
3. Leku estrategikoetan ikus-informazioa jarri (kartelak, liburuxkak, etab.).

3.2 Urratsa) ARRISKU TXIKIKO ESPOSIZIOA

Oro har, adierazitako neurriez gain (1. urratsa), honako hauek hartu dira kontuan:

3.2.1) Antolaketa-neurriak

1. Ziurtatu lantokietan higiene-neurriak ezartzen direla eta baita berorien jarraipena ere (esposizio-probabilitate baxuko neurri berberak).
2. Egunero lanera bertaratzen direnak sintomarik gabekoak direla egiaztatzea
3. Sarrera mailakatu, eta aldageletan elementu komunak garbitzea sarrerako txanda bakoitzean.

3.2.2) Babes kolektibokoak

1. Banatzeko oztopo fisikoak jarri: 2 m-ko distantzia duten lan-kokapenak.
2. Aurrez aurreko kontaktuetan distantzia eta denbora mugatzea, ikastetxearen barruan komunikazio telematikoa erabiltzea.

3.2.3) Babes pertsonalekoak

1. Beharrezkoa den babes biologikoko NBE hautatu eta proposatu, ebaluatutako arrisku-mailaren arabera (eskularruak, babes-arropa, maskarak, etab.).
2. NBEak hautatu, haien egokitasuna, deskontaminatzeko aukera, merkatuan eskuragarri dauden... kontuan hartuta.
3. Eskuen higiene zorrotza egingo da erabiltzailearekin kontaktuan egon aurretik eta ondoren eta babes-ekipoa kendu ondoren.

3.2.4) Prestakuntza eta informazioa

1. Langileei prestakuntza eman jakin dezaten NBEak nola erabili behar dituzten eta beren arrisku-mailarako prebentzio-neurri espezifikoak zein diren.
2. Langileei prestakuntza eman jakin dezaten arrisku-maila horretarako hautatutako NBE nola mantendu, biltegiratu eta azkenik nola bota.
3. Eskuak behar bezala garbitzeko jarraibideak eman.
4. Koronabirusa prebenitzeko gomendioak zabaldu.
5. Leku estrategikoetan ikus-informazioa jarri (kartelak, liburuxkak, etab..)

3.3 Urratsa) ARRISKU- ESPOSIZIOA

Maila orokorrean eta arrisku ertaineko mailan identifikatutako neurriez gain, honako hauek ere hartu beharko dira kontuan:

3.3.1) Antolaketa-neurriak

1. Oro har, aurrez aurreko kontaktua saihesti: telefonoak, telelana, leihatilak eta abar erabili. Eta lan-tresnak ez partekatzea.
2. Segurtasun-errutinen kontrola eta mantentzea areagotu, batez ere higiene-neurriei, esposizioari eta foku posibleekiko esposizioa murrizteari dagokienez.
3. Edozein pazienterekin harremanetan jarri diren osasun-profesional guztien erregistroa egin, kontrola eta jarraipena egiteko.

3.3.2) Babes kolektibokoak

SARS.Cov-2 birusa Coronaviridae familiako birus bat da 664/1997 Errege Dekretuan 2. mailakotzat sailkatu dena. Beraz, proposatzen diren neurriak derrigorrezkoak ez diren arren, posible litzatekeen tokietan, gomendagarria litzateke:

1. Aireztapen-sistemak berrikustea eta, hala badagokio, eraginkortasun handiko iragazkiak instalatzea (Hepa).

3.3.3) Babes pertsonalekoak

1. NBEen beharrezko konbinazioa hautatzea izatea, ebaluatutako arrisku-mailaren arabera (eskularruak, betaurrekoak, babes-arropa, pantailak, maskarak...).
2. NBEak hautatu, haien egokitasuna, deskontaminatzeko aukera, merkatuan eskuragarri dauden... kontuan hartuta.

3.3.4) Prestakuntza eta informazioa

1. Langileei prestakuntza eman jakin dezaten NBEak nola erabili behar dituzten eta beren arrisku-mailarako prebentzio-neurri espezifikoak zein diren.
2. Langileei prestakuntza eman jakin dezaten arrisku-maila horretarako hautatutako NBE nola mantendu, biltegiratu eta azkenik nola bota.
3. Eskuak behar bezala garbitzeko jarraibideak eman.
4. Koronabirusa prebenitzeko gomendioak zabaldu.
5. Leku estrategikoetan ikus-informazioa jarri (kartelak, liburuxkak, *etab.*

4. URRATSA - KONTROLA ETA KOMUNIKAZIOA

1. Arriskuen ebaluazioa etengabe eguneratzen dela bermatzeko mekanismoak ezartzea, bereziki langileak arrisku-mailaren arabera sailkatzeari eta dagozkion prebentzio-neurriak aplikatzeari dagokienez. neurriak
2. Larrialdi-plan espezifiko bat ezartzea, enpresako hierarkia-mailen arteko komunikazioak mantentzeko egungo egoeran.

Zer	Hartzailea	Bidea	Noiz
Jarraibideak, jarduerak, prozedurak...	Hezkuntzako zuzendariak , Ordezkaritzak	Posta elektronikoa, telefonoa	Argitaratu edo jakinarazi aurretik, onar dadin
Informazio orokorra, eskaerak, Jarraibideak	Ikastetxeetako Zuzendaritzak Langileak Prebentzio ordezkariek	Web orria Posta elektronikoa Telefonoa	Ekintza orokorrak eta/edo eskaeraren arabekoak
Egoeren informazioa, zalantzak, etab.	SPRL	Telefonoa Posta elektronikoa	Beharrezkoa denean.



ERANSKINAK

1. Aplikatu beharreko legeria

- A. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- B. 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.
- C. 664/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa.
- D. 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohijo neurriei buruzkoa.

2. Osasun eta Osasun publikoko protokoloak

- [Procedimiento de actuación frente a casos de infección por el nuevo coronavirus \(SARS-CoV-2\)](#)
- [Procedimiento de actuación para los servicios de prevención de riesgos laborales frente a la exposición al SARS-CoV-2.](#)
- [Beste hainbat prozedura espesifikoago](#)

3. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Instituto Nazionalaren gida teknikoak

- [Guía técnica para la evaluación y prevención de los riesgos relacionados con la exposición a agentes biológicos.](#)



5. Europako ibilbide-orri bateratua, COVID-19ri eusteko neurriak hartzeko

Hartzen diren neurriek irizpide zientifikoetan oinarritu behar dute eta osasun publikoari lehentasuna eman behar diote

1. Urratsak gradualak izango dira, etapa desberdinetan, eta haien artean nahikoa denbora utziko da (adibidez, hilabete bat), altxatzearen eragina denboran zehar bakarrik neur daitekeelako.

2. Zentroko neurri orokorren ordez, neurri espezifikoak ezarri behar dira pixkanaka.

a) Talde ahulenak denbora gehiagoz babestu behar dira. Horiek babesten jarraitzeko neurriak hartu behar dira, eta, aldi berean, beste talde batzuei mugak kendu behar zaizkie.

b) Diagnostikatutako pertsonak edo sintoma arinak dituztenek berrogeialdian egon behar dute eta behar bezala tratatu behar dira

c) Indarrean dauden debeku orokorreko neurrien ordez, segurtasuna eskaintzen duten neurriak ezarri behar dira: horrek arrisku-iturrietan zentratzea ahalbidetuko du, eta, aldi berean, beharrezko jarduera ekonomikoak pixkanaka itzultzea erraztuko du (adibidez, garbiketa eta desinfektatze intentsifikatuak eta garraio-nodoak eta ibilgailuak, dendak eta lantokiak aldizka desinfektatzea, zerbitzu jakin batzuk erabat debekatu ordez, eta neurriak hartzea edo ekipamendu egokiak hornitzea). Langileak babesteko eta

3. Eragin arinagoa dutenekin hasi behar da neurriak kentzen, eragin negatiboa badute atzera egin ahal izateko.

Eskolak eta unibertsitateak (neurri espezifikoekin, hala nola ordutegi desberdinekin, garbiketa-neurriak indartzearekin, ikasgela irekiagoekin, lineako ikaskuntzarako gero eta baliabide handiagoarekin, etab.)

Birusaren hedapena prebenitzeko ahaleginei eutsi behar zaie: sentsibilizazio-kanpainak herritarrak hartutako higie-jardunbide egokiei eustera bultzatu behar dituzte.

Neurri horiek etengabe gainbegiratu behar dira, eta prest egon behar dugu konfinamendu-neurriak berriz ezartzeko, beharrezkoa denean.



6. Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako kontingentzia-plana

Data	2020ko apirilaren 14a
Aplikatzeko eremua- Ikastetxea	EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak

1. URRATSA: Arriskua saihestea	Neurri orokorrak hartzea. (6. orr.)
---	-------------------------------------

2. URRATSA : COVID-19rekiko esposizio-arriskuaren ebaluazioa	
Egoera	<ul style="list-style-type: none"> • EZ dago ikaslerik • Ikastetxeetan, irakasleen (zuzendaritza-taldeetakoak gehienak), garbiketako langileen, administrazioko langileen eta ordenantzen gutxieneko zati bat egotea • Ez dago obra aktikorik ikastetxeetan
Jarduerak- bestelakoak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeetan langileen asistentziaren eguneroko kontrola mantentzen da.
Arrisku-maila	<ul style="list-style-type: none"> • ESPOSIZIO-PROBABILITATE TXIKIA . (8. orr.)

3. URRATSA : Prebentzio-jardueraren plangintza, arrisku-mailaren arabera: Neurri orokorretan adierazitakoak (1. urratsa), jarraian zehazten dira ahaztu behar ez direnak:
--

Antolamendu-neurriak

Aurrez aurreko harremana eta aurrez aurrekoa mugatzea: telefono bidezko lana, telelana, etab.

Aurrez aurreko langileen kasuan, [asistentziaren eta hurbiltasun-egoeren eguneroko erregistroa](#)

1. Ziurtatu:

- * lantokietan higiene-neurriak ezartzen direla eta berorien jarraipena . Eskuak maiz garbitzea.
 - * Eskuak lehortzeko xaboi likidoa eta papera banatzeko gailuak daudela. Eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzeko aukerarik ez dagoenean, oinarri alkoholikoko desinfektatzaile bat eman.
 - * zabor-poltsekin estalitako paperontziak daudela. [Gainazalak sakonki garbitu](#)
- Garbitzaileek pixkanaka aldagelara sartu (pertsona bat baino gehiago izanez gero) eta berriazko [garbiketa-protokoloa](#) erabiliko dute.

2. Ziurtatu jendearentzako arreta dagoen gunetan, aurreko gomendioez gain, erabili eta botatzeko paperezko zapiak eta zabor-poltsez estalitako paperontziak daudela.

3. Prebentzio-neurrien berri eman eta mugatu instalazioetara sartzeko edukiera (gehieneko kopurua, banan-banan sartzea, etab.).

SPRLri zalantzak izanez gero, informazioa eskatzeko aukera. Pertsona sintomatikorik badago, abisatu SPRLri: prebentziohezkontza@euskadi.eus.



Babes kolektibokoak

1. Langileen arteko 2 metroko distantzia mugatzea eta mantentzea, gela bereziak, materiala entregatzeko lanetarako arreta-leihatilak, edo materiala 2 metrora jasotzeko kokapena.
2. [Laneko espazioak egunero garbitzea eta desinfektatzea](#)

Norbera babestekoak

1. Ez da beharrezkoa NBE erabiltzea. Gela berezietan geldituz gero, ordea, egoera jakin batzuetan, hala nola pertsona sintomatiko bat dagoelako susmoan, taldeko bileretan edo erabiltzaileekin (ikasleak edo gurasoak) harremanetan jartzean, arnasketa-babesaren eta babes-eskularruen erabilera adieraziko da, bai eta garraio publikoetan ere.

Prestakuntza eta informazioa

1. [Eskuak behar bezala garbitzeko jarraibideak eman.](#)
2. [Koronabirusa prebenitzeko gomendioak zabaldu](#)
3. Leku estrategikoetan ikus-informazioa jarri (kartelak, liburuxkak, etab) .

4. URRATSA: Kontrol eta komunikazioa

SPRL bidezko komunikazio-neurriak:

- prebentziohezkuntza@euskadi.eus
- http://www.euskadi.eus/contenidos/enlace/spri_contacto/eu_def/adjuntos/contacto_con_SPRL_e.pdf
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-lapz/>



Data	20 de abril de 2020
Aplikatzeko eremua-Ikastetxea	EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak

1. URRATSA: Arriskua saihestea	Neurri orokorrak hartzea. (6. orr.)
---------------------------------------	-------------------------------------

2. URRATSA : COVID-19rekiko esposizio-arriskuaren ebaluazioa	
Egoera (Lan prosezua deskribatzen duen deskribzioa Azpikontratak...)	<p>Ikastetxeetako zuzendaritzek, beren antolamendu-autonomia baliatuz, batzuek erabaki dute langileak itzultzeko eskatzea, hainbat zereginekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Irakasleak bilerak egiteko eta hezkuntza-materialak banatzeko · Sukaldeko langileak, espazio berean sukaldea garbitzeko. · Azterketak prestatzea, etab. <p>Horrek nabarmen aldatzen du koronabirusarekiko esposizioaren arriskua.</p> <p>Zirkunstantzien arabera, ikastetxeak jarduera horiek egiteko beharra justifikatu behar du, bai eta arrisku mota horietarako aurrez deskribatutako neurri guztiak betetzeko modua ere, eta arrisku horien eraginpean egongo dira langileak.</p> <p>Prebentzio Zerbitzuak ez dauka zeregin horiek berriro hasteko argibide orokorrik.</p> <p>Ikastetxeko zuzendaritza bakoitza arduratuko da beharrezko prebentzio-neurri guztiak kontuan hartzeaz, zeregin horiek guztiak langile guztien osasunerako behar besteko segurtasunarekin egin daitezkeen, eta bereziki sentiberak diren langileei haien babes bermatzeko.</p>
Jarduerak- bestelakoak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeetan langileen asistentziaren eguneroko kontrola mantentzen da.
Arrisku-maila	<ul style="list-style-type: none"> • ARRISKU TXIKIKO ESPOSIZIOA EDO ARRISKU-ESPOSIZIOA .(9. Orr.)

3. URRATSA: Prebentzio-jardueraren plangintza, arrisku-mailaren arabera: Neurri orokorretan identifikatutako neurriez gain (1. urratsa), arrisku-maila berri horietarako aurreikusitako neurriak hartu beharko dira. (9 – 10 orr.)

ARRISKU TXIKIKO ESPOSIZIO-NEURRIAK ETA ARRISKU-ESPOSIZIOKO NEURRIAK ERABILTZEAK, KASUAREN ARABERA.

4. URRATSA: KONTROLA ETA KOMUNIKAZIOA
--

OHARRA: Ikastetxe bakoitzak gertakizun-plana eduki behar du, lanari berriro ekin aurretik eta egoera aldatzen den bakoitzean.